



ACT-MC-2018/0004

## KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

### AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN 2.GUTUN-AZALAK IREKITZEA

**Bileraren gai-zerrenda:** Astigarragan GI-2132 errepidea 27 Poligonarekin lotzeko proiektua idaztea (2-NC-108/2017-AT) zerbitzu kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen 2.gutun-azalak irekitzea.

**Eguna:** 2018ko urtarrilaren 19a

**Hasiera ordua:** 09:15

**Amaiera ordua:** 09:25

**Tokia:** Bide Azpiegituretako Departamenduaren Erabilera anitzeko 3.gela (Miramon pasealekua, 166.)

#### Bertaratutakoak:

**Mahaiburua:** Silvia Pérez Yéboles, Errepideetako zuzendari nagusia.

**Bokalak:** Mikel Uribexebarria Barrena, Kudeaketa eta Plangintzako zuzendari nagusia  
Jon Bilbao Arrate, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.  
Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

**Idazkaria:** Miguel Fonseca de la Rosa, Kontratazio Zerbitzuko burua.

2018ko urtarrilaren 17an Kontratazio Mahaia ireki zituen aurkeztutako enpresen 1. gutun-azalak. Enpresa guztiek, gaitasun eta kaudimenaren gaineko dokumentazioa aurkeztu zuten.

2018ko urtarrilaren 19an Kontratazio Mahaia eratu da 2. gutun-azalak jende aurrean irekitzeko, eskaintza teknikoak hain zuzen, kontratazio honen baldintza administratibo berezien agirian ezarri den bezala, balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera eman behar delako haztapena, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak baitira. Ekintza honetan egiaztatuko da aurkeztutako eskaintzek agirian ezarritako irizpide guztiak (izenburuak) sartu dituztela euren eskaintza teknikoetan. Gero, irizpide horien edukiak aztertuko ditu teknikoak puntuazioak esleitzeko.

Horrela bada, 2.gutun-azala ireki da eta unean bertan egiaztatu da enpresa guztiek irizpide teknikoak sartu dituztela. Hala ere, unean bertan egiaztatu da ASMATU SLP enpresak ez duela dagokion euskarri digitala aurkeztu.

Hori dela eta, hiru egun baliodun emango zaizkie esandakoa zuzentzeko, 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaz onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 81.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

MAHAIBURUA,

Sin.- Silvia Pérez Yéboles

IDAZKARIA

Sin.- Miguel Fonseca de la Rosa